

## V - BESTELAKOAK

### URAREN EUSKAL AGENTZIA

#### MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

#### **Arabán, Bernedoko udalerrian, 6. poligonoko 1116. lursailean kokatuta dagoen etxebizitzan sortutako hondakin urak isurtzeko baimena**

Espediente-zenbakia: VDP-A-2021-0017

Eskatzailea: Angel García Armentia.

Angel García Armentiak eskatu du, Bernedoko udalerrian, 6. poligonoko 1116. lursailean kokatuta dagoen etxebizitzan sortutako hondakin urak isurtzeko baimena, eta horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 8a

*Isurketa arduraduna*

**AITOR BELDARRAIN URIONDO**